

Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA
2009ko UDA



EUSKALTEGIAREN HIRUGARREN JAIA

eta gainera....

- KUKU ikastaroa
- Euskararen Etxean
- Korrika...eta abar



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



KU-KUAK AGERI



Haurrei mintzatzeko ez omen dugu ohiko hizkera erabili behar. Horixe ikasi genuen Etxebarriko ikasleok maiatzaren lehenengo astean, Ku-Ku liburuxkaren azalpena ematera etorri zitzaigunean. Izan ere, delako liburuxka horretan oinarrituta, Ane izeneko neskak hankaz gora jarri zituen Kultur Etxea, Barandiaran eta Jubilatuen Etxea ia astebetez. Umeei zelan hitz egin ez ezik, haiekin nola jostatu ere irakatsi egin zigun Urtxintxa astialdi eskolako neskatoak. Bi orduko saioa izan bazen ere, di-da batean pasatu balitzaigu bezala geratu ginen hara hurbildu ginenok.

Hasiera batean Anek aipatu zigun umeei ez diegula hitz egin behar guk egunero erabiltzen ditugun hitzekin ez eta esamoldeekin ere. Adibidez, oso ezaguna egiten zaigu umeari bere izena aipatu

barik, “txiki”, “txikitxu” eta abarrak erabiltzea. Nola esan, ordea, ume bati “kalera joango gara” edo “eser zaitez” bezalakoak? Bada, “*Apapan joango gara*” edo “*egin apatxe/apatxin*” esan behar diegu. Zer dela-eta? Alde batetik, umeei ez dute soinu guztiak ahozkatzeko guk besteko erraztasunik. Bestetik, soinu horiek asimilatzekeo tresnak oraindik ez dituzte garatu.



Ikus ditzagun, beraz, bertan ikasi genituen gauzetako batzuk zeintzuk izan ziren.

Laztana, goazen apapan? (Laztana, goazen kalera?)

Apatxe aulkian (Eseri aulkian)

Eman pa amatxori! (Eman musu bat amari)

Pu-pu egin al duzu? Etorri amatxorengana, polit hori... (Min egin duzu? Etorri amarengana, laztana)

Et-et-et... (Ahoan ibili behar ez den gauza bat badu, “ez-ez-ez” bezalakoak)

Plisti-plasta, txipli-txapla (Bainua hartzen ari direla, urarekin sortzen den onomatopeia)

Tas-tas: (Ipurdian tas-tas emango dizut...)

Tirrina (Zilborra)

Txanxturra (Esne-hortza)

Zibuak (Kolunpioak)

Zer duzu, ba? (Zer gertatzen zaizu?)

Egin zintz! (Mukiak kendu)

Korroskadarik ez bota mahaian!

Mizkina zara, gero! (Jaki asko gustatzen ez zaionean)

Papo egin, e! (Amaitu dena, e! otorduetan erabiltzeko)


Honetaz guztiaz gain, hainbat joku eta kanta ikasi genuen. Esate baterako, oso gutxi zekien *txantxurra* erortzen zaienean erderazko "ratoncito perez"-en orde z zer kantatu ahal den. Hona hemen Euskal Herriko Perez sagutxua. Ez Perez, ez sagutxua: Maritxu Teilatuko. Izan ere, burkoaren azpian utzi behar du hortza eta:

Maritxu Teilatuko

Gona gorria

Eutsi hagin zaharra

Eta ekarri berria



Edota zotz egitekoak:

Dona dona katona

Sutondoan aitona

Lepotik behera kutuna

Atera kanpora neska-mutila

Zutik amaitu genuen azken ordu erdi luzetxoan borobil bat eginda eta Kinkirrinera delakoa abesten:

Ala kinkirrinera

Ala xamurrera

"Haurraren izena" plaza berriko

Jira hadi beste aldera.



Etxebarriko **BERRA** Lapikook Euskararen Etxean

Maiatzaren zortzian (Otxomaioak Urduñan!), ostiralarekin, Etxebarriko "Berbalapiko" taledetako bateko kide batzuek arratsaldeko bostak eta laurdenetan jarrita genuen hitzordua metro geltokian, Euskararen Etxeari bisita egiteko asmoz. Arratsalde leuna, gris argia eta epela zen, eta han batu ginen Aitziber, Sonia, Janire, Ascen, Inma eta Jabi, Aulestiko Mitxelen eskutik San Inaziora joateko. A, eta Soniaren semea, lau urteko morroskotxoa, Ivan izenekoa, plastikozko ezpata ederra bezain beldurgarria eskuan zerabilela, badaezpada ere.

San Inazioko geltokiko Lekeitio deritzon irteeratik oso hurbil dago Euskararen Etxea. Hara iritsi eta Roland-ek harrera abegitsua egin zigun. Haren gidaritzapean, 45 bat minutuan bisita polit interesgarriaz gozatu genuen.

Ba al dakizue zenbat euskalki eta azpieuskalki dauden? Eta euskara nondik datorren? Zenbat urte dituen? Eta, aizue, nor dugu Etxepare? Eta Axular, Deabruarekin tratuetan ibilitako apaiz idazle iaioa? Zer da Luzarragaren eskuizkribua? Euskara indoeuroparra da? Iberiarren hizkuntza proto-euskara bat izan ote zen? Zergatik aizkora deitzen da horrela eta ez, esate baterako, "burdingora"? Zergatik daude hainbeste euskal hitz non eta Ternuan? Nor zen Amery Picaud? Maite ote gintuen? Zenbat Euskal Etxe daude mundu zabalean? Zein hiritan?... Honen

guztiaren berri eman zigun Roland-ek, hizkera argi eta jatorra erabiliz eman ere, Ivanek bere ezpataz pantailetako viking itxurako indoeuropar eta euskaldunak kikilarazten zituen bitartean.



Irteterakoan, argazkitxoa, eta Etxebarri berriro, nor bere etxera...tabernan tragoxka bana hartu ondoren, jakina! (Prefosta!, batzuek diotenez).

Berbalapikook, berbalagunok, mintzalagunok, mintzakideok eta abarrok, gure txikan bada ere, denon artean oihaltxo apal baina ederra osatzen ari gara, oihaltxo bat non euskarak baduen zeri heldu, nola eutsi eta norekin hazi. Helduko al da honelako ekimenik behar ez den eguna! Bitartean, zatozte gurekin adiskideak ezagutzera, gaur tabernan edo kalez kale, bihar Euskararen Etxean edo GKE batean, etzi mendian edo museoan, etzidamu...zeuk esan!



Benedetti, hegaluzea, eta porrusalda



Hirugarren urtez Euskaltegiak festa prestatu zuen ikasleontzat eta giro aparta sortu zen Bekosolo Parkean zein Etxebarriko tabernetan. Maiatzaren 28an izan zen.

Goizean 10etan heldu ginen ikasleak parkera eta aurreko urteetan bezala kartulinazko lore ederrak hazi ziren berdeguneetan eta zenbait faroletan ere!

Jaiaren lehenengo saioari ekin genion eta proba ugari egin genituen. Hasteko gure taldeak puxikak puzteari ekin genion ipudiarekin

binaka lehertzeko. Azkar amaitu genuen eta gainean geneukan eguzkiari esker ere lehenengo izerdi tantak agertzen hasi ziren.


Ondoren irakasleen txikitako argazkiei izena jarri behar genien eta, egia esan, batzuk besteak baino aldatuago daude.

Pintxoak prestatu, zuhaitzen latinezko izena topatu....proba entetenigarri asko. Horien artean, liburutegian Benedettiren liburu bat bilatu behar izan genuen, Koldo liburuzainaren laguntzari esker. Eta literaturarekin jarraituz, hurrengo proban kopla txiki bat idatzi behar izan genuen, Egun da Santimamiña doinurako. Lehiaketa amaitu zenean, eta puntuak zenbatzen ari ginenean, Goñi irakasleak trikitixa hartu zuen eta Egun da Santimamiña kantua abestu genuen. Banan banan talde bakoitzak bere kopla kantatzen zuen eta denon artean estribilloa edo leloa:

Egun da Santimamiña
Benetan egun samiña
Goiko zeruak gorde dezala
Luzaro neure arima



Ondoren, jubilatuen taldea heldu zen marmitakoa egiteko osagaiak erosi eta gero. Hegaluzea, tipula, patata (12 kilo!!!), piperra, tomatea, baratxuria....tira, ez dugu gehiegi kontatuko; izan ere, esan zidaten sekretuak ez kontatzeko. Eta bai, uste dut sekreturen bat dutela, gozo-gozo egon baitzen Marmitakoa.



Eta bazkalosterako, nola ez, kantak. Goñik (multiinstrumentista) gitarra hartu zuen eta jubilatuen abesbatsak aurtan egin dituen aurrerapenak entzun genituen. Gainera, ezagutzen ez genituen kanta batzuk ere ikasi ahal izan genituen, Eperrak, adibidez.



Eta egunari amaiera emateko, triki-poteoa egin zuten arratsaldeko ikasleek Kepa eta Jonen trikiti eta panderoaren soinuarekin.

Beti bezala, herrian ikusi ahal ziren Bekosolon jolasten egon ziren umeak parketik topatzen zituzten loreekin, poz-pozik.

Ongi etorri, eta ongi ibili

16. korrika æk

ongi etorri

Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik
apirilaren 5era

euskaraz bizi nahi dugunon herrira!



Korrikaren 16. edizioak Etxebarri zeharkatu zuen apirilaren 4ko eguerdian.

Etxebarriko 500. urteurrena gogoratzeko kamisetak banatu zituen udalak plazan, bitartean txokolate beroa hartu genuen eta txalapartaren doinu gozoa entzun.

Dena zegoen prest Galdakotik zetozen korrikalariei lekukoa hartzeko eta Etxebarritik erakusteko euskararen alde, ehunka etxebarritarrek egin zuen bezala.

Esan bezala, eguerdian heldu zen, pixka bat atzeratuta eta Udaleko bi ordezkariak hartu zuten lekukoa Baskonia zubian. Etorbideko errotondaraino eraman zuten eta bueltan Euskaltegia ordezkatu zuten bi ikaslek hartu zuten lekukoa: Luisek eta Rakelek. Aurtengo Korrikak Euskal Herritik kanpo etorritako jendea omendu nahi izan du, horregatik euskaltegiak proposatu zuen euskara ikasten ari diren ikasle etorkinak omentzea.

Luisek eta Rakelek Barandiaraneko ordezkariak zituen zain Txiki Otaegi plazan lekukoarekin aurrera egiteko.

Ondoren Soinuzalek, Harribidek, Ikastolak eta San Antonioko eskolak eta institutuak eraman zuten lekukoa baskoniara zubiraino. Bertan zeuden zain Basauriko korrikalariak lekukoa hartzeko eta Gasteizerainoko bidean eramateko.

Gasteizera heldu zen lekukoa biharamunean eta hantxe zeuden Pirritx eta Porrotx, Mari Mototsekin azken kilometroa egiteko prest. Amaieran Tuteratik Gasteizera lekukoaren barruan bidaiatu zen mezua irakurri zuten:

ESAGUZU EUSKARAZ, EMAGUZU MUXU

Zebarri erdiko orrialdean argazki gehiago dituzue.

Zebarri 7



1- Eneko, azaltzen Miyuki-rekin hegoamerikatik tandemean egindako ibilbidea



2- Chillidaleku museoa




3- Sagardotegian



4- Korrika 16



4- Korrika 16




5- Euskaltegiaren Jaia



“Boga, boga...marinela...”

...hauxe dio kanta zaharrak...



Aurten, zalantza barik, bogalaririk onenak Etxebarrin egon dira. Izan ere, BOGA sistemaren bidez ia 50 ikasle aritu dira euskara ikasten urritik aurrera. Iazko datuekin konparatuz gero, bikoiztu egin da Etxebarriko euskaltegiak euskara ikasteko metodo honi dagokion matrikula-kopurua. Beraz, esan barik doa balantzea guztiz positiboa dela.



BOGAren bidez ikasteko eskaintzak iaz eman zituen lehenengo urratsak Etxebarrin. Bertoko zentroa kudeatzen duen Bilboko Ulibarri euskaltegiak, oster, bide luzea egina dauka auto-ikaskuntzan.

Ikasturte honetan, eskaintzari eustiaz gain, urrats garrantzitsu bi eman dira. Alde batetik, aurtengo ikasle-kopurua era egokian kudeatu nahian, auto-ikaskuntzarako propio izango zen gela sortzea

bururatu zitzaigun eta horixe egin genuen Etxebarriko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz. Beste aldetik, ikasleen gurarietara egokitzen saiatu gara eta, horrela, eurentzako gunea sortu dugu, non BOGA aritzeko ordenagailua eskura daukaten.

Zer da BOGA baina?

Labur-labur esanda, euskara Internet bidez ikasteko sistema multimedia da. BOGAk ordenagailu bidez, on-line eta punta-puntako Moodle plataforma euskarri daukala funtzionatzen du.

Sistema honek euskalduntze prozesu osoa hartzen du eta HABE-k ezarritako lau mailetan banatuta dago. Multimedia sistemaz gain, ikasleek bakarka eta taldeko tutoretzak hartzeko aukera daukate, zeinetan, nagusiki, mintzamina lantzen den.

Zer diote benetako protagonistek? Hona hemen lau BOGA-lari bikainen iritziak.

- ⊖ Eduardo naiz eta 45 urte dauzkat. Ezkonduta nago eta alaba bi dauzkat. Niretzat BOGA oso garrantzitsua izan da, familiarekin egoteko denbora ez didalako kendu. BOGA etxean egin ahal dut alaben laguntzarekin.

Sistema honek euskara ikasten lagundu dit, baita alabekin euskaraz komunikatzen ere.

Eduardo Agra

- ⊖ Aurten BOGA aukeratu dut euskara ikasten jarraitzeko eta esperientzia ona izan da. Hasieran, erritmoa hartzea kostatu zitzaidan, normalean ez dudalako ordenagailua erabiltzen. Baina erraza izan da eta, gainera, edozein zalantzarik badaukat, tutoretza dago bertan behar dena argitzeko. Honez gain, astero, talde-saioa joaten naiz euskaraz hitz egitera. Primeran pasatzen dut giroagatik eta ikaskideak ere oso jatorrak direlako! Nire ustez, BOGA euskara ikasteko aukera ona da, bakoitzak ikasteko ondo datorkion ordutegia aukeratu ahal duelako.

Elena Rodriguez

- ⊖ BOGA-ri esker ahaztuta neuzkan nozio batzuk berreskuratu ahal izan ditut. Indarberrituta, berriro euskara ikasten hasi naiz, nire helburu nagusia alabatxoarekin euskaraz komunikatzen ikastea izanik. Sistema honek nire erritmoan ikasteko aukera ematen dit, libre dauzkadan tarteak aprobetxatuz. Asteko talde-saioan eta hamabost egunez behin bakarkako tutoretzan hitz egiten ikasten dut, baita etxean ikasten dudana hiztegia zein gramatika erabiltzen ere.

Teresa Gómez

- ⊖ Kaixo!
Cefe naiz eta Etxebarrikoa naiz. Ume bat daukat. Nire semeak 6 urte dauzka. Urritik orain arte euskaltegira joan naiz eta, orain, semeak eta biok euskara elkarrekin praktikatzen dugu.
Nik guraso guztiak animatzen ditut euskaltegira joateko euskara ikastera. Denbora gutxitan asko ikasten da. Udaletxeko diru-laguntzarekin jende guztia joan ahal dela pentsatzen dut.
Oso esperientzia ona izan da eta jarraituko dut.

Cefe Gonzalez



Etxebarriko Ulibarri euskaltegiko auto-ikaskuntza gelaren izenean, ESKERRIK ASKO aurten gugana hurreratu zareten guztioi!

ESKERRIK ASKO Elena, Edu eta Teresa zuen ekarpenagatik!



Liburu eta filmen txokoa



Kutsidazu bidea Ixabel



Juan Martin liburu honen protagonista dugu. Donostiarra da eta euskara ikasi nahi duenez, baserri batera joaten da uda pasatzera. Bertan hizkuntza eta ohiturak ikasi eta era berean, izugarrizko abenturak biziko ditu. Baserriko aita, ama, bikiak, Ixabel eta amona haren familia bihurtuko dira eta poliki poliki, hain arrotza iruditzen zitzaion bizitzara ohituko da.

Hasieran liburu astuna egin zitzaigun, baina orriz orri interesgarriagoa bilakatzen da. Guk uste dugu liburu honekin asko ikasiko duzuela, horregatik gomendatzen dizuegu euskara ikasten ari zaretenoi. Egoera oso dibertigarriak biziko dituzue eta Juan Martin adibide hurbila izango duzue. Tira, askotan kostatu egiten zaigu irakurtzea baina badaude mota askotako liburuak, honekin hain zuzen, oso ondo pasatuko duzue! Ekin diezaiogun ba, irakurtzeari!

Kutsidazu bidea Ixabel (antzerkia)

Ikasturte honetan liburuarekin batera Kutsidazu bidea Ixabelen antzerkia ikusi dugu euskaltegian; Liburuarekin konparatuz, entretenigarriagoa da, antzerkian liburuan baino txiste gehiago kontatzen dituztelako. Aktoreen itxura oso dibertigarria da eta istorioa azkarrago kontatzen denez di-da batean jakin dezakegu nola amaitzen diren Juan Martinen abenturak. Gomendatzen dizuegu, antzerkia gustatzen bazaizue.



Hamabost zauri

Liburu hau eleberri berezia da. Kapituluetan banatuta dago eta bakoitzean istorio desberdinak agertzen dira, haien artean erlazorik ez dutenak. Amodioa, pertsonen arteko harremanak; emakumeak, gizonak eta gazteak protagonista dira eleberri honetan eta haien artean gertatzen diren egoerak azaltzen ditu liburu honetan Karmele Jaiok. Oso liburu polita dela iruditzen zaigu, ulergarria eta sentimenduz beteta. Guztiz gomendagarria sentimenduen sakontasunean hausnartu nahi baduzue...





Finalera joandako baten egunkari ezkutua

Nekez ahaztuko dugu bizkaitarrok (bilbotarrok, etxebarritarrok...?) aurtengo maiatzaren lehenengo hamabostaldia. Dena prest zegoen 25 urteren buruan Athleticen 25. aldiz Errege Kopa irabaz dezan. Denak adierazten zuen aurten Athletic zaleek bigarren mailara ez jaistea helburu izan duen azken bost denboraldi hauetan baino sasoi dezenteago bizi ahal izango zutela. Bazirudien aurten baietz. Aurten Athleticen, bere filosofiarri jarraituta, milioien ligaren kopa irabazi ahal zuela. Amaiera denok jakingo duzue: Galdu.

Etxebarriko euskaltegiak berriemailea bidali zuen Valentziara zuei finalaren berri bai eta bertan suertatu zen giroaren berri emateko.

Astearte gauean, 21:30ak inguru, abiatu ginen Valentziara. Kotxean, janaria(amamak egindako tortillak, haragia, piper berde erreak,...), edaria (zatoa edo bota, sagardoa, garagardoa) eta amets bat: 25 urterekin Athletic neure bizitzan lehen aldiz Kopako txapeldun ikustea.

Ezin imajinatu joaneko bidaia zelangoa izan zen. Athleticen jarraitzaileok Bilbotik Valentziara doan errepidearen jabe. Tapaukiak, ikurrinak, jendeak Athleticen kamiseta jantzita. Kotxe, furgoneta baita karabanetako klaxonek esnatuta mantentzen gintuzten bidaiariok. 6 orduko bidaiaren ostean, 03:00ak aldera, Valentziara ailegatu ginen. Kotxea garaje batean sartu eta bueltatxo bat ematera joan ginen bertan zegoen giroa ikusteko. Giro askorik ez, eta, biharamunean biziko genuena gogorra izango zelakoan, etxera bueltatu ginen kuluxkatxo egitera. Etxera esan al dut? Kotxea utzi genuen garajera esan beharko.



Hamarrak aldera esnatu eta, garajeetan lehiorik ez dagoenez, ez genekien zein arropa jantzi. Hotz izango zen? Bero? Euririk? Azkenean erabaki genuen Athleticen kamisetaz jantzita ateratzea. Erabaki egokia hartu genuela uste dugu, atera eta Valentzia osoa zuri-gorritz baitzebilan.

Zer esan bertako giroari buruz...Itzela. Valentziako txoko guztietan Athleticen jende andana. Hori bai, Athleticen hitzordu honetarako montatutako txosna erraldoira bertaratu gero, Aste Nagusian edo San Tomas zeundela ematen zuen. Hori jendetza Turiako ubidean zegoena. Denbora guztian erlojuari begira, hamaikagarrenez denbora geldiarazi nahi zenuen. Denborak aurrera egin zuen, ordea, nahi baino azkarrago. 20:30ak ziren eta futbol-zelaira joatea erabaki genuen. Geuk bezala, beste hamaika pertsonak ere Mestallarako bidea hartu zuen sarrera eskuan. Mestallara sartu eta umee bezala, aho zabalik, ezin elkarri hitzik egin. Hainbeste zen sentitzen genuen zirrara...

Partida hasi eta geuk sartu genuen lehenengo gola. Toquero hurrengo hauteskundetako lehendakariak, hain zuzen. Ematen zuen gidoia beteko zela eta irabaziko genuela. Toure Yayaren gola. Atsedenaldea. Messiren gola. Bojanen gola. Xaviren gola. Bat eta lau. Zorigaitzokoak gu! 25 urtean behin finalera ailegatu eta munduko talderik onenaren kontra jokatu behar...

Heldu den urtean izango da.



denborapasa

ZENBAKIEN DANTZA

	7		8		9		4	
1	8			7			9	2
	2			8			3	
		1	3		6	9		
	4			9			6	
2	9			6			1	7
	6		9		4		2	

ez al dakizu sudoku famatuan nola jokutzen den? Ba, hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, baina kontuan hartu errenkada eta zutabe bakoitzean ezin dela zenbaki berbera bi aldiz agertu, ezta 3x3 lauki bakoitzean ere. Ea lortzen duzun

10 GORPUTZ ATAL

I	B	A	P	K	U	E	Z	T	S
Z	I	L	B	O	R	R	A	S	B
T	A	I	K	P	Z	T	K	U	I
E	B	T	K	E	H	A	I	O	Z
R	E	A	Z	T	M	N	L	T	K
R	T	K	X	A	L	D	A	K	A
A	I	R	S	T	Z	O	U	X	R
S	L	O	T	A	K	A	O	P	R
B	E	E	S	X	B	D	L	U	A
T	A	K	A	S	T	O	K	O	K



eta zopa ez da hain zaila ezta? Ala bai. Tira, zeuk esango diguzu zenbat denbora behar duzun letra dantza honetan agertzen diren 10 gorputz atalak aurkitzeko.

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

5

ENE/NIRE, NIRI

Euskal pertsona-izenordainen deklinabidean batasuna lortzeko, punturik korapilotsuena, forma indartuen arazoa alde batera utzirik, *ni* izenordainaren *noren* kasuari dagokiona da. Euskalki guztietako testu zaharretan kasu horren forma *ene* zen, bizkaieratik zubererara:

Arren, ene andra Milia Lasturko, / Mandatariak egin deust gaxtoto (TAV 3.1.5).

Ene begiakaz biotzeen artean / Errenkore andiak erne zitean (TAV 3.1.22).

Zeren sobera bekatu" egin baitu"t pensamentu"z, hitzez eta obraz: ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz (FPrS 1676, 9).

XVII. mendearen amaieran *nere* forma agertzen da, goi-nafarrerazko testu batean, eta hurrengo mendean urte bertsuetan azaltzen da lapurteraz (1733) eta gipuzkeraz (1739). Geroago, baina mende berean, *nire* forma agertzen da bizkaieraz. Harrez gero, *nire* eta *nere* nagusituz doaz Hegoaldean *ene* forma zaharraren kaltetan, gaur egun, batez ere, zenbait esapide fosildutan (*ene!* e.a.) erabiltzen dena.

Iparraldean, aldiz, *ene*, *nere* bezain erabilia da, ahoz nahiz izkribuz.

Mende honetan, *nire* aldaeraren aldeko joera nabaria gertatu da Hegoaldean. Joera hori aurreko belaunaldietan hasi zen nabarmentzen, Azkuek bere "Gipuzkera osotuan" *nire* forma proposatu zuenez gero, eta erabat normala da Orixegan eta bere belaunaldiko beste hainbat idazle ez bizkaitarren.

Bestalde, jakina denez, *nire*-ren aldeko joera hori areagotu da euskara batuan. Orobat, ezin ahaztuzkoa da, batasunaren ikuspuntutik, Bizkai aldeko hainbat idazlek *nire* aldaerari dion atxikimendua.

Neri-ri dagokionez, forma berria da, XIX. mendearen erdialdean *nere*-tik analogiaz sortu zena, eta harrez gero batez ere gipuzkerazko idazleek (ez, dena dela, guztiek) erabili dutena; *niri*, aldiz, euskalki guztietan (zubereraz izan ezik) agertzen da lehen testuetatik hasita. Kasu honetan zahartasuna eta hedadura kontuan harturik *niri* da hobestekoa. *Neri*-ren arrazoi berberengatik *eni* formak, batez ere zubereraz erabili dena, baztergarria dirudi.

Hauxe da, hortaz, Euskaltzaindiaren erabakia: *ni* izenordainaren *noren* kasuan *nire* erabil dadila (eta, jakina, *niretzat*, *nirekin*), eta orobat *ene*, maila jasoan bederen; *nori* kasuan *niri* erabil dadila.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)



EUSKALTZAINDIA

UDA ERE EUSKARA IKASTEKO SASOIA DA ESTUDIA EUSKERA EN VERANO

Este verano puedes seguir
estudiando euskera en el
Euskaltegi de Etxebarri

Aurten euskara ikasten jarraitu
ahal izango duzu Etxebarriko
Euskaltegian

Todos los niveles
EGA
Perfiles

Maila guztiak
EGA
Hizkuntza Eskakizunak

SUBVENCIONADOS POR EL
AYUNTAMIENTO

UDALETXEAK DIRUZ
LAGUNDUTA

MATRICÚLATE EN JUNIO

MATRIKULAK EKAINEAN

ETA AURTEN...

- BOGA

autoprendizaje por ordenador

- EGA-koloniak

**EGA ateratzeko kurtso bereziak, 16 urtetik gorakoentzat:
txangoak, museoak, erakusketak...aisialdia, eskolak...
euskara ikastea udan hain gogorra izan ez dadin.**

**Cursos especiales para la preparación de EGA,
para mayores de 16 años: excursiones, museos,
exposiciones...actividades y clases... para que
estudiar euskera en verano sea aun más agradable.**



Bekosolo parkea z/g
Etxe horia / Casa Amarilla
Tel/Fax 94 426 28 02
etxebarri@euskalnet.net



YLiBARRi
EUSKALTEGIA